

# قافلة بين سينمائيات

## ZINEMAGILEEN ARTEAN

EMAKUMEEK EGINDAKO  
ZINEMAREN 10. KARABANA

MAIATZAREN 31TIK EKAINAREN 4RA

GOLEM ZINEMAK  
AZKUNA ZENTROA ALHÓNDIGA BILBAO

**KCD**  
Kultura Komunikazioa eta Ondarea  
www.kcd-ongd.org

**CINE INVISIBLE**  
FESTIVAL INTERNACIONAL  
DEL CINE MUY VISIBLE 2021

TUENO JAURRIKATIK  
GOB. ERNO. VASCO

**G**  
GURUPONERAKO LANKIDETZAREN  
EROKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO

**Bizkaia**  
Bizkaia  
Euzko Legebiltzariaren  
Euzko Legebiltzariaren

**klaketa**  
KULTURA

**golem alhóndiga**

AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

**00ABIAN**

# “ZINEMAGILEEN ARTEAN” 10. KARABANA

2012an, “Zinemagileen artean” karabanaren abentura hasi zen Bilbon, emakume zinemagile arabiarrek beren gizartearekiko eta munduarekiko duten begiradaren alde apustu egiten duen urteko zinema-zikloa. Azken 10 urteetan, emakumeek Egipton, Libanon, Palestinan, Marokon, Aljerian eta beste herrialde batzuetan bizi dituzten errealitateak hurbildu dizkio karabanak Bilboko publikoari, komunikabideetan agertzen den emakume horien irudi estereotipatutik urrun. Karabanari esker, eztabaidarako eta esperientziak trukatzeko gune bat ireki zen zinemagileen eta publikoaren artean, eta hurbiletik ezagutu ahal izan zuten mundu arabiarreko egoeraren konplexutasuna eta emakume zinemagileek egoera hori nola ikusten duten.

Bilboko publikoari esker, karabanak 10 urte iraun ahal izan du; baina, ez hori bakarrik, bere programazioa zabaldu egin da, nazioarteko karabana bihurtzeraino. Horrela, beste herrialde batzuetako emakumeek egindako pelikulak eman ahal izan ditu, zinema arabiarrekiko konpromisoari eutsiz.

Espero dugu gure begirada kritikoak eta esperientziak Bilboko publikoarekin askoz urte gehiagoan partekatzen jarraitzea.

Amal Ramsis

Zinema-zuzendaria eta “Zinemagileen artean” emakumeek egindako zinema-karabanaren fundatzailea.

# ZER DAKARKIGU BILBORA “ZINEMAGILEEN ARTEAN” EMAKUMEEK EGINDAKO ZINEMA-KARABANAK?

Bost film luze, bost istorio eta Jordania, Suitza, Frantzia, Sudan eta Brasilgo bost zinema-zuzendari. Horiez gain, emakumeek Bilboko eta Kairoko (Egipto) zinema - eta ahalduntze-lantegietan egindako lau film labur ditugu. Emakume zinemagileak ezagutzera ematea da karabananaren asmoa, eta zineman kristalezko sabaia apurtzea.

Dagoeneko 10 urtez eskaini dira nazioarteko zinema-profesionalek egindako pelikulak, agerian jartzen dituztenak emakumeek genero-arrakala ezabatzerakoan aurrez aurre aurkitzen dituzten erronkak.

10 urtean aliantzak sortu dira Klaketa Árabe produkzio-etxearen eta Kultura Communication y Desarrollo KCD Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundearen (GGKEaren) artean, ekitatea lortzeko eta emakumeek egindako zinema-karabana Bilbon urtero errealitate bat izateko.

Zatoz Bilboko Golem zinema-aretoetara eta zinemagileekiko foroetara!

J. Carlos Vázquez Velasco

*Zuzendaria*

Kultura Communication Desarrollo KCD GGKE

Bilboko “Film Sozialak” Zinema Ikusezinenaren Nazioarteko Jaialdia.

# “ZINEMAGILEEN ARTEAN” 10. KARABANA

**Datak:** maiatzaren 31tik ekainaren 4ra

**Lekua:** Golem Zinemak - Azkuna Zentroa Alhóndiga Bilbao

**Saioak:** 16:30etan, 19:30etan

**Sarrerak:** 2,70€ saio bakoitzeko.

## PROGRAMAZIOA

31, ASTELEHENA

16:30etan, 19:30etan



**19:30etan.** Saioa gonbidapenarekin.

([www.kcd-ongd.org](http://www.kcd-ongd.org))

**KCD GGKEk, Amal Ramsis** egiptoar dokumentalistak (arabiar lurralderako Emakumezkoek egindako Zinema Karabanaren zuzendariak) eta **Lina Soualem** frantziar zuzendariak aurkeztuta.

\* Zeinu-hizkuntzaren zerbitzua.



### • THE FLOWER OF MARYAM

Emakumeek egindako kreazio-dokumentalaren tailerra, Kairo, Egipto, 2020, 8 min / JB arabieraz, azpтитuluak gaztelaniaz.

- **THEIR ALGERIA. Lina Soualem**

Dokumentala, Frantzia, Aljeria, Suitza, 2020, 72 min / JB frantsesez eta arabieraz, azpтитuluak gaztelaniaz.

*Film luzerik onenaren saria CINEMED 2020n*

62 urte elkarrekin bizi ondoren, Linaren aitona-amonek, Aïcha-k eta Mabrouk-ek, banantzea erabaki dute. Orain 60 urtetik gora iritsi ziren Aljeriatik Thiersera, Frantziako erdialdean dagoen Erdi Aroko hiri txiki batera. Bata bestearen ondoan bizi izan dute etorkinen bizitza kaotikoa. Linarentzat, erbesteko bere bidaiak luzea eta bere isiltasuna zalantzan jartzeko aukera da banantzea.

1, ASTEARTEA

16:30etan, 19:30etan



**19:30etan. KCD GGKEk eta Marwa Zein sudandar zuzendariak aurkeztutako saioa.**

\* Zeinu-hizkuntzaren zerbitzua.

- **MAMA, I WANT TO TELL YOU SOMETHING**

Emakumeek egindako kreaio-dokumentalaren taillerria, Kairo, Egipto, 2020, 7 min / JB arabieraz, azpтитuluak gaztelaniaz.

- **KHARTOUM OFFSIDE. Marwa Zein**

Dokumentala, Danimarka, Frantzia, Norvegia, Sudan, 2019, 75 min / JB arabieraz, azpтитuluak gaztelaniaz.

*2019ko film dokumentalik onenaren saria Afrikar Zinemaren Akademia (AMAA), 2019ko dokumentalik onenaren saria Kartagoko Zinema Jaialdian, 2019ko dokumentalik onenaren saria Tarifako Zinema Jaialdian (FCAT).*

Khartumgo emakume gazteen talde batek futbol profesionalean jokatzeko erabaki du, herrialdeko gobernu mi-

litar islamiarrak debekatuta izan arren. Sudango emakumeen talde nazional gisa onartuak izateko borrokan, beldurra alde batera utzi eta ausardia eta sekulako irimotasuna erakusten dituzte. FIFAk emakumezkoen taldeei ematen dien funtsak jaso arren Federazio Nazionalak, marjinatuta jarraitzen dute. Hala ere, itxaropen-izpi txiki bat pizten da, Federazioko hauteskondeek sistema alda dezaketela ikusten dutenean.

## 2, ASTEAZKENA

16:30etan, 19:30etan



**19:30etan.** KCD GGKEk, Tali Yankelevich zuzendari brasildarrak (zoom bidez) eta Itxaso Díaz dokumentalistak aurkeztua, emakumeentzako bideo-tailerreko parte-hartzaileekin.



\* Zeinu-hizkuntzaren zerbitzua.

- **"MANOS, PIES, AGUA Y ALGUNA CALABAZA". EMAKUME IRAULTZAILEENTZAKO BIDEO TAILERRAREN EMAITZA**  
Bilbo, 2020, 7 min / JB gaztelaniaz, azpigituluak gaztelaniaz.
- **"ZENTZUMEN ASALDATUAK". EMAKUMEENTZAKO BIDEO TAILER PARTIZIPATIBOAREN EMAITZA**  
Barakaldo, 2021, 5 min / JB gaztelaniaz, azpigituluak gaztelaniaz.
- **MEU QUERIDO SUPERMERCADO.** Tali Yankelevich  
Dokumentala, Brasil, 2019, 80 min / JB portugesez, azpigituluak gaztelaniaz.

*Dokumentalik onenaren sarirako izendatua 2020ko DOXA Zinema Dokumentalaren Jaialdian eta sail ofizialerako sailkatua 2020ko Visions du Réel Jaialdian.*

Zeregin guztiz errepikakorren erdian, supermerkatu bateko langileek leku bat aurkitu dute beren zalantzak eta afektuak, beldurrak eta amets gertaezinak adierazteko. Umorea, drama, misterioa, amodioa eta fisika kuantikoa nahastu egiten dira esne-kartoiekin, haragi-xerrekin, barra-kodeekin eta segurtasun-kamerekin. Supermerkatu bateko eremu txikian murgilduta, pertsona horiek uko egiten diote errutinak beren espiritua bahitzeari.

**3, OSTEGUNA**

**16:30etan, 19:30etan**



**19:30etan. KCD GGKEk eta Dina Naser jordaniar zuzendariak aurkeztutako saioa.**

\* Zeinu-hizkuntzaren zerbitzua.

• **TINY SOULS. Dina Naser**

Dokumentala, Jordania, 2019, 85 min / JB arabieraz, azpitituluak gaztelaniaz.

*Giza eskubideen saria Kosovoko 2019ko DOKUFEST Dokumentalaren eta Film Laburren Nazioarteko jaialdian.*

Siriako gerratik ihes egin ondoren, espiritu libreko 9 urteko neskato batek eta bere familiak bizitza konfinatuan zehar nabigatu behar dute, Zatariko (Jordaniako) errefuxiatu-esparruan lehorreratu ondoren. Lau urtez, pertsonaiek kanpamentuko hormen barruan duten bizitza jarraitzen du zuzendariak. Haurtzarotik nerabegarorako aldaketa jasotzen du, beste egokitzapen- eta biziraupen-egoera askorekin batera, haien patua mehatxuan jarriko duen gatazkara iritsi arte.



**19:30etan.** KCD GGKEk eta Andrea Štaka suitzar zuzendariak aurkeztutako saioa (Zoom bidez).

\* Zeinu-hizkuntzaren zerbitzua.

• **MARE. Andrea Štaka**

Fikzioa. Suitza, Kroazia, 2020, 84 min / JB ingelesez eta kroaziarrez, azpigituluak gaztelaniaz.

*Sariduna Sarajevoko 2020ko Zinema Jaialdian, pelikularik onenaren saria Solothurn-eko (Suitza) 2021eko Zinema Jaialdian.*

Mare-k ez du inoiz hegan egin, senarrarekin eta hiru seme-alaba nerabeekin aireportuaren ondoan bizi arren. Familia maite du, haietaz kezkatzen da; baina, batzuetan, ia arrotz baten gisa sentitzen da etxean. Nor dira berarekin bizi diren pertsona horiek? Gainetik igarotzen diren hegazkinei begira dago Mare, aldaketa eta ezezaguna dena irrikatuz. Egun batean, mutil gazte bat etortzen da aldameneko etxera, eta Marek proban jartzen du bere bizitza.

## 2021ko KARABANARAKO BATZORDE HAUTATZAILEA

- Amal Ramsis
- Joseba Villa González
- Itxaso Díaz Cabrera
- Cristina Alba Pereda
- Amaia Nerekan Umaran
- Gorka López Arantzamendi
- Leire Pascual Basauri

## PROGRAMAZIOA

J. Carlos Vázquez Velasco